

TERESA ARGAZKIETAN (Teresaren Aurpegia)

Sarrera

Euskal irakurleari Teresaren aurpegiekin 40 orrialde aurkeztean, santa honen giza aldea eta alde fisikoa hurbildu nahi izan dizkiogu, haren hainbat argazki ezagutzeko zoria izan dugularik. Teresak bere xalotasun eta izaera atseginagatik ontzat eman zuen berari argazkiak egitea. Gaur egun liburu eta koaderno ugari dira Teresari buruz ari direnak eta argazki kopuru handia dutenak, baina guk, Frantzisko Santa Mariarenak egindako sarrera eta oharrekin bi liburukitan dagoen argitalpena, hau da, "Visage de Thérèse de Lisieux" (Lisieux 1961) erabili dugu batez ere.

Gehienak taldeko argazkiak direla izan behar da kontuan. Guk haietatik ateratzen dugu Teresaren aurpegia eta haren pertsonaren zenbait xehetasun seinalatzen ditugu.

Karmeldar bat argazkilaria:

Zelina, bere aita hil ondoren (1894), Lisieux-ko Karmelen sartzen denean, komentu-ko argazkilaria bihurtuko da; hark argazkigintza landu zuen pixka bat bere lehengusina Maria Guérin-ekin batera, hau ere gero komentu berean moja sartuko zelarik. Zelinak Karmelen sartzekoan aldean eraman zuen bere argazki-makina.

Aurpegi irribarretsua:

Teresaren aurpegiaren ezaugarrietariko bat, bere bizitza osoan zehar, irribarrea izan zen; irribarre horrek xarma berezia zuen, argazkietan beti hain argi agertzen ez bada ere. Barne-banetik zerion irribarrea Teresari, berez-berezko jarrera bezala. Ez zitzaion falta umore ona, ezta malezia pixka bat ere batzuetan.


J.U.



1: Teresa hiru urte t'erdia zituela.

Argazia Alençon-go argazkilari batek 1876.eko uztailaren erdialdean egina da. Beñi irribarretsu ibili ohi zen Teresa argazki-tramankuluek izuturik zegoen, negar egiteko zorian.







2: Teresa zortzi urte zituela.

1881.eko argazkia. Teresak jauzi egiteko soka dauka esku artean.

Xehetasunak nabarmentzen ditugu: begiak eta eskuak.





3: Teresa hamahiru urte zituela.
Argazki hau 1886.eko otsailekoa da.





4: Teresa 15 urte zituela.

Teresari, salbuespena eginez, "Mototsa" zuela egin zioten argazki hau, Lisieux-ko Karmelen sartzeko baimena eskatzeko Bayeux-eko apezpikuaren aurrera joan behar izan zuenean. Argazkia Erromara egin zuen bidaia baino lehenago (1887.eko urriaren 31an) egina da.





5: Teresa, nobizia, kapa zuria daramala.

1889.eko urtarrilaren 10ean abitua jantzi eta egun gutxi barru egina.

Argazkilaria: Gombault jauna, instalazio bati buruzko aholku tekniko batzuk ematera baimenez klausurara sartu zen seminario txikiko ekonomoa.



7: Teresa, bere ahizpak eta ama Maria Gonzagarena.
Data: 1894.eko irailaren 14a eta 1895.eko otsailaren 5a artekoa.






6: Teresa, nobizia, kapa zuririk gabe.
*Aurreko argazkiaren data berekoa
eta argazkilari berberak egina.*



8: Aurreko argazkiko pertsona berdinak eta data bera.



9: Teresa Joana Ark-ekoa antzezten.

Data: 1895.eko urtarrilaren 21a eta urte bereko udaberria artekoa.

Teresak urtarrilaren 21ean Aines Jesusena priorearen jaia zela eta, Joana Ark-eko donsuari buruzko antzerki bat egin eta bere nobiziek inkomunitatearen aurrean antzeztu zuen. Antzezpenak irrika handia sortu zuen. Paper edo kartoizko apaingarriak dituen jantzia nobiziek gertatu zuten.



10: *Data berbera eta zio berdina.*



11: *Data berbera eta zio berdina.*





12: *Data berbera eta zio berdina.*






13: Komunitatea solasialdian.

Data: 1895.eko otsailaren 5a baino beranduago, egun horretan abitua hartu zuen Zelina bertan ageri da eta; seguruenik argazki hau martxoaren azkenetakoa edo apirilaren hasierako izango da.

Teresa ezkerrean, zutik, zuhaitzaren ondoan Jesus Haurraren irudiaren atzealdean.



14: *Data berbera eta zio berdina.*






15: Komunitatearen argazkia patioan.
Data: 1895.eko otsail-uztailean.



107

108

16: Teresa, bere nobizia eta Ama Aines Jesusena
eta Ama Maria Gonzagarenarekin.
Data: 1895.eko otsail-uztailean.





17: Artzain Onaren jaiegunean egindako komunitatearen argazkia.
Data: 1895.eko apirilaren 27a edo 28a.





18: *Data berbera*
eta zio berdina






19: Komunitatea garbilekuan.

Data: 1895 (uztailaren azken eguna baino lehenago)



20: Teresa, belauniko, Zelina bere ahizparekin patrioko gurutzaren ondoan.

Data: 1896.eko martxoaren 17a, Zelinak belo beltza hartu zueneko (aurrerantzean Jenofa Aurpegi Santuarena deituko da).





21: Teresa Marta ahizparekin patioko gurutzaren oinetan.
Data: 1896.eko martxoaren 17a.



U P S 7



22: Teresa patioan.

Data: 1896.eko mar-
txoaren 17a. Teresak
ezkerreko eskuan, Avi-
lako Santa Tesesaren
"Mila bizitza emango
nituzke arima bat sal-
batzeko" esaldia ida-
tzita jasoten duen
paper kiribildu bat
dauka.



orduero eske ta eske dut zure ahots leuna,
esaten didazu: 'egarri naiz, maitasun egarri!'

Neu ere banaiz zure preso,
eta nahi dizut nik ere errepika
zure eskari gozo eta jainkozkoa:
'Nire Maitea, nire neba,
maitasun egarri naiz.!' (TO 31).

"Teresa gaixoaren Jesus"ek, gizon-emakumeon intimitatean bizi nahi dau. Hunkiluta daukagu Teresa Jaunaren apaltasunez eta bere maitasunaren eskeintzaz. Ez daki zelan deitu be Jesusi. Batzutan, "Maitasunaren Jainko-Eskalea" (TG 172) deituko dautso. Bestetan, "Maitasunaren Jainko-Zalduna" (TG 183) eta "maitasunaren Jainko-Presoa" (TG 189) Maitasunaren maitasunez burutik eginda dirudi "Teresa gaixoaren Jesus"ek: "Hau poza *zorameraino* maite gaitunarengatik sufritzea eta munduaren begietan erotzat hartuak izatea! Besteak geure buruz epaitzen ditugu, eta mundua zentzugabea denez gero, gu geu garela zentzugabeak uste du!... Baina azken batez, gu ez gara lehenengoak! Herodes-ek Jesusi leporatu zion krimen bakarra *zoraturik* egotearena izan zen... eta nik ere hark bezala pentsatzen dut!... Bai, *zoraturik* zegoen; haren eromena, errege-*aulki* bihurtu nahi zituen hilkorren bihotz gaixoak bilatzean zetzan. Jesus, kerubinen gainean eserita dagoen aintzazko Erregea!... Jesus, beronen presentziari zeruek ezin eutsi diotena! *Eroturik* izan behar zuen gure Maiteak, lurrera bekatarien bila etorri eta bere lagun, bere kutun, bere *pareko* egiteko. Jesus, Hirutasuneko beste lagun biek hain zoriontsua zena!... Guk ezin-gu dugu sekula hark gugatik egin zuen erokeriak egin" (TG 169).

Jesusegaz "benetako maitasun-trukea"n (A Esk., 46¹) bizitzea posible da Teresarentzat. Hortxe dago kristau santutasuna. Jaungoikoa Jaungoiko bada eta gu bere kreaturea errukarri batzuk baino ez, zelakoa izan leiteke "egiazko maite-truke" hori? Maitasunaren logikan ez dago ezinezkorik. Gogoko dau Teresak Joan Kurutzekoaren pentsamentu eder hau: "Maitasuna maitasunez bakarrik ordaintzen da" (*Kantu izpirituala*, 9. ahap.) Karmengo Ordenako maisu haundiaren intuizioa bereganaturik, bere amarriko ikurtzat hartuko dau (ik. A Esk., 85⁴) tekaima gazte honek. 18 urte inguru izango ditu momentu honetan Teresak.

"Betiko kantika, atzerrian kantatua" deritxon olerkian datozen berbekin laburbildu geinke Teresaren esperientzia sakona:

"Zure emazte erbestetuak, atzerriko erriberan,
kanta dezake 'Maitasunaren betiko kantika',
zuk, ene Jesus Eztia, ontzat baituzu lurrean
zeruan bezala, maitasun-suaz hura kiskaltzea.
Nire Maite-maite, Edertasun goren,
zeure burua didazu niri ematen
baina horren ordainez
maite zaitut nik
eta nire bizitza
ez da maite ekintza bat baizik" (TO 28).



24: Maria Hirutasunaren profesa egunean,
1986-IV-30ean





25: Komunitatearen argazkia.
Teresa gurutzea besarkatzen.





26: *Data berbera eta zio berdina.*





27: Hainbat ahizpa baratzean lanean.

Data: 1896. eko uztaila.





28: Komunitatearen argazkia Mariaren
Bihotzen irudiaren ondoan.

Data: 1896.eko uztaila.



29: Teresa belauniko, arrasarioa
eskuetan duela.

*Data: 1896.eko uztaila. Teresa,
hainbat hilabete lehenagotik gaixo-
rik zebilen.*





30: Teresa lirioa eskuetan duela.

Data: 1896. eko uztaila.



31-32: Teresa elizain lanean, bere ahizpekin eta Maria lehengusinarekin.

Data: 1896.eko azaroa.





UPB :



33: *Data berbera*
eta zio berdina.

34: Teresa, Jesus Haurren eta Aurpegi Santuaren irudiekin.

Data: 1897.eko ekainaren 7a. Hau eta hurrengo biak, ama Maria Gonzagarena beraren jaiegunean (ekainaren 21) emateko asmoz eginak izan ziren.





35: Data berbera eta zio berdina.

Beraren ahizpa Jenofari aurreko argazkian, Teresaren aurpegia triste xamarra iruditu zitzaion eta irribarre txiki bat duen bigarren hau egin zion. Argazkia egiteko egonaldia gutxienez 9 segundutakoa zen eta Teresak sukar handia zeukan.



36: Data berbera eta zio berdina.

Teresak, guztiz ahul izanik, "Oi, egin azkar, jota aurkitzen naiz eta" hots egin zuen.

Nobiziei ez zitzaien argazki hau gustatzen, bertan Teresa betilun ageri delako eta hura normalean irribarretsu agertzen zelako.




37: Aurreko argazkiko xehetasunak.





38: Teresa gaixorik.

*Data: 1897.eko abuztuaren 30a.
Hil baino hilabete lehenago,
bizirik zela egin zitzaion azken
argazkia.*





39: Teresa hilik.

Data: 1897.eko urriaren 1ekoa; hil eta hurrengo egunean, eritegian.

40: Teresa hilik, koruan.

Data: 1897.eko urriaren 3ko igande arratsaldea.

